

...eta

Kitto!

944 zkia.
2015-X-2



Bihar TXOTX!!! Eguna

REPS, 175/151 L.L.G.

Egin iezaiezu
SCHOOL VISUAL TEST-a
zure haurrei

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

hapiick® Automated parcel delivery system

internet bidezko erosketak jasotzeko modurik erosoena

Badakigu zuretzat aisialdia oso garrantzitsua dela, eta horregatik zerbitzu hau eskaintzen dizugu.

| Ordutegi malgua | Segurtasuna | Pribatutasuna |



www.hapiick.com



Vending Kalbeton

Avia Kantoi



EROSKETAK EUSKERAZ EGITERA ANIMATZEKO LELO-LEHIAKETA

1. Dendaz denda euskeraz berba
2. Euskeraz bizi eta erosi
3. Herrixan, dendetan, euskera ezpainen
4. Erosi bertan euskeraz berbetan
5. Atean ez gelditu, euskeraz aritu!
6. Zatoz euskaraz eroatera



LAGUNDUIGUZU LELOA

← AUKERATZEN

800 lelo jaso eta gero, ondorengoak aukeratu ditu Dendariak eta Ostalariak Berbetan Batzordeak



Orain zuen txanda da. sartu ...eta kitto!-ren Facebook-eko orrian eta bozkatu! (urriaren 9ra arte)

Bozkatzen duzuenon artean **Kantabria** jatetxean **bi lagunentzat afaria** zozketatuko dugu.

Lelo-irabazlea, **100 €**-ko erosketa-txartela irabazteaz gain, Gabonetan, Euskeraz Primeran! kanpainan dauden dendetan, opariak egiteko erabiliko da, pegatina moduan.



ASTEAN ESANAK

“Aurten adin desberdinetako hegaluzea harrapatutu dugu eta seinale ona da. Aurreko urteetan ez zen hegaluze txikia ikusten, eta arraina kaxetan sartzeko arazoak sortzen ari zirela uste zen. Hegaluzea, gainera, gertu daukagu aurten; horregatik, lonjetan ere asko saldu da. Batez beste, lau euroko prezioa izan du kiloak”

(MIREN GARMENDIA,
GIPUZKOAKO ARRANTZALEEN KOPRADIA)

“Abisatu zuten zinema sozialak pisu handia izango zuela aurtengo programazioan. Ba galdetu zinema aretoaren ilunean ondoan eseri, lurrin usain iradokitzailea hedatu, hankak gurutzatu, sakelekoa lau aldiz kontsultatu eta protagonistaren sufrikarioa jasanezina iruditzen zaiolako filmaren erdian alde egin duenari! Zertaz ari zara?”

(IGOR SUSAEZA,
ZINE KRITIKARIA)

“Banaketa baten aurrean, haur txikiak ez dute erabat ulertzen gurasoak banatzea, eta berriz elkartuko diren fantasia hori izaten dute. Nerabeek, aldiz, kontrakoa egiten dute: oso garbi ikusten dute banaketa, eta ez direla elkarrekin bueltatuko, baina badute joera bat gurasoetako bati edo besteari errua egozteko. Beti ere, bikote bat banatzean familia proiektu bat ere amaitzen da”

(ÁLAITZ GARMENDIA,
BANAKETA PROZESUETAKO PSIKOLOGOIA)

“Teknologia berriek, berez, ez dakarte onurarik ikasketa prozesuan, eta gehiegizko erabilerak eragin negatiboa izan dezake. Teknologia batera metodologia berria lantzea beharrezkoa da”

(OCDE,
EKONOMIA LANIKIDETZA ETA GARAPENERAKO ERAKUNDEA)

Gure aurrekoak erabiltzen zuten euskerara

KONTXOI.- Haserrea edo harridura adierazteko interjekzioa. “Kontxo, apurtu jata barautza”.
KOPAUA.- Mokaua. Normalian KOPAUA BAT. “Urkiolara heldu baiño lehen kopau bat hartu genduan Txakurzulon”.

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikun.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitetzke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Leire Iturbe
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Wenzeslao Orbeako jaixak

Bixar ospatuko dittue San Wenzeslaoren omenezko jaixak Wenzeslao Orbea kalekuak, goizetik hasiko dan programari jarraituta: 10.30xetan trikitalarixen errit-mora hasiko dabe eguna eta jarraixan, 11.00ak aldera auzoko artistak egindakuekin erakusketia zabalduko dabe. Ordu erdi geruago ume eta helduendako jokuak hasiko dira: sokatira, kaskara-batzia, zaku-lasterketak... Eguardi parterrako txorizo pintxo-potia preparau dabe eta 13.15xetan III. Patata-tortilla Txapelketia zeñek irabazi daben emongo dabe aditzera: parte-hartzailliak etxian egindako tortillak epaimahaikeri presentau biharko detsez eta irabazliak

Chalcha jatetxian lagun birendako bazkarixa izango dau sari. Bigarren geratzen danari, barriz, Abontza estetikan erabiltzeko 100 euroko bonua emongo detse. Halanda be, hórrek ez dira izango premixo bakarrak, parte hartzen daben guztien artian zozketia egin eta saridunak auzoko artista batek egindako kuadrúa eruango dau etxera. Herri-bazkaria 14.30xak aldera hasiko da eta Duo Amanecer taldekuak girotuko dabe bazkalostia. Eta arratsaldian, txokolate-jana eta pintxo-potia egin eta gero, 20.00etan hasi eta gaberdiraiño DJ Arnok eskinduko daben musikiarekin dantzan egittekoko aukeria egongo da.



Jaixen hirugarren edizifua egingo dabe. LEIRE ITURBE

Debabarreneko IV. Aste Ekologikoa

Astelehenian presentau eben Debabarreneko IV. Aste Ekologikua antolatzailliak, Eibarko udalak eta Biolur eta Debemen alkartiak. Astiaren testuinguruan eta Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eta ENE-EK-en laguntasunarekin bixar goizian azokia ipiñiko dabe Urkizuko parkian, 10.00etatik 14.00etara. Hogeitamar bat postutan era guztietako produktuak erosteko aukeria egongo da: "Danak Gipuzkoan eta inguruan ekoiztutako produktu naturalak izango dira eta, horrekin batera, nekazaritza ekologikuaren inguru-



Asteleheneko aurkezpen irudixa. SILBIA HERNANDEZ

ruko informaziñua eta materixal didaktikua banatzeko hiru mahai ipiñiko dittugu Biolurrek, Eibarko Aza Ta Porrúa alkartiak eta EHKOLEktiboak-ek". Aurkezpenian azpimarratu ebenez, "horrelako azoketan, produktu natural eta ekologikuak erosteko aukeria eskintziaz gain, erosliak ekoizliekin harreman zuzena euki leikie eta, horrerik esker, zuzenian produktueri buruzko galderak egin eta zalantzak argittu".

Hiru urteera duan

Azokaren inguruan, bestalde, hiru urteera antolatu dittue: urriak 6xan

Elgoibarko Txillarre basarrixan, 18.00etatik 21.00etara tokixa bisitatziaz gain, sukaldaritza taillarrian eta ondorengo dastaketan parte hartzeko aukeria egongo da; urriak 8xan, barriz, Itziar-Debako Txindurri Iturri basarrira bisita eta sagardogintza ekologikua bertatik bertara ezagutzeko aukeria eskinduko dabe (18.00etatik 21.00etara); eta urriaren 10ian, Sosola basarrira bisita eta umiendako okintza taillarra antolatu dittue. Hirurak duan izango dira, baiña interesa dakanak izena emon biharko dau, Biolurrera deittuta (943 76 14 47 telefono zenbakixa)

Saudi Arabiatik Armerixara bisitan

Egunotan Saudi Arabiako ikasle eta irakasle talde bat Armerixa Eskolara bisitan etorri da. Eskoliaren gaineko historixia kontatziatz gain, Zigor Aldazabal eta Mikel Bayer irakasliekin batera eskolako Elektrizidade Saila (instalaziñuak, automatizaziñua eta industria-robotika) erakutsi detsez. Arabia Saudiko ikastetxiak urtero emoten dittuan premixo batzueri esker etorri da taldia Euskadira bisitan, gure industria eta gizartia bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Egindako harrerria eskertzeko, Juan Carlos Molinero Armerixako zuzendariordiak plaka bat jaso eban arabiarren eskutik.



Sanmigueletakako errepikapena asteburuan

San Miguel eguna asteburuan izan zala eta, jaixak ospatzeko jarduera gehixenak bixar eta etzi egingo ditue Aginagan: bixar arratsaldetik hasiko dira, briska txapelketia jokatuta eta umiendako jolas eta txokolate-janarekin. Gabian, lagunarteko afarixa amaituta, 23.00etatik aurrera erromerixia eskinduko dau Kupa taldiak eta nahi dabenak goizaldian, txokolatua jateko aukeria be eukiko dau. Eta domekan 11.00etan hasiko da meza nagusixa San Miguel ermittan. 12.30xetan Gorriti eta bere animalixen saiua hasiko da eta, ondoren, Mugi Panderoa taldiak alaittuko daben paella-jana egingo dabe auzokuak. Eta jaixak agurtzeko, 17.00etan zozketia egingo dabe.



Mugi Panderoa taldiak domekako bazkalostia alaittuko dau.

Emakumiendako ikastarua



Urriaren 9xan amaittuko da "Maitasuna ez da kristorena" ikastarorako Pegoran izena emoteko epia. Andretxean emongo dabe kursua, urriaren 23 eta 24an (17.00etatik 20.30etara) eta azaruaren 6 eta 7xan (10.00etatik 14.00etara eta 15.00etatik 18.30etara). Antolazailiak azaldu dabenez, "emakumiendako preparau dogun ikastaruan sexu-erasuak eta hórretxen aurrian zelan erantzun identifikauko dittugu".

autuan

1937-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak azaruaren 13an batuko dira euren jairako. Bazkarixa Unzaga Plaza hotelian egingo dabe eta jua nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 5109009115389087 kontu zenbakixan, izen-abizenak zihezuta.



EH BILDU AUZUETARA BISITAN

Atzo Txonta-Urkizun hasi zittuen EH Bilduko ordezarixak auzuetara bisitak. Atzo egindakuaren bidetik, hiru asterik behin auzo batera juateko asmua dake "auzuen egoeria eta premiñak zuzenian ezagutzeko". Hurrengo bisitak noiz eta nora izango diran aurrerago emongo dabe aditzera. Bizilagunen bat bisita eurekin batera egin nahi badau bildu@eibar.eus helbidian edo 943708428 telefonuan ipiñi leike kontaktuan.



Mind Body Emotion

ADIMENA ERA DIBERTIGARRI ETA ERAGINKORREAN GARATZEKO HEZIKETA METODO INTEGRALA

Izen emate
epea irekita
2015-2016
ikasturtea

ESKOLA ERRENDIMENDUA

ETA GARAPEN PERTSONALA HOBETZEN DU



ERRESERBATU ZURE LEKUAI

Juan Guisasola 16, Eibar

Izen ematea: eibar@nenos.es • Tel. 688 802 705 • www.nenos.es

asteko
380.000
datua

380.000 txerto dakaz Osakidetzak, urriaren 5ian abiatuko dan Gripiaren Kontrako kanpaina. Txertuetan 1'2 millioi euro inbertidu dittue eta bakotzeko gastua 3'15 eurokoa da. Azaruaren 30era arte egongo da martxan kanpaina.

Alfredo Elorza botikarixak saritua

Alfredo Elorza eibartarrak Gipuzkoako botikarixen erreko-
nozimendua jaso eban aurreko zapatuan Donostian, Gipuzkoako Sendagillien Alkartiak urtero egiten daben jaixan: Elorzak "Ohorezko Elkargokide" sarixa jaso eban Angel Garai alkarteko presidentiaren eskutik. Elorzarekin batera Gipuzkoako beste sei botikari saritu zittuen. Premixuarekin farmaziari eskindu detsazen urtietan egindako biharra eskertu eta aitortu nahi izan detsez Elorzari. Nafarroko Unibertsitatean Farmazian Lizentziatua eta Bartzelonako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean teknika or-



topedikuan titulaua, omenduak 1971. urtiaz geroztik Juan Gisasola kaleko Elorza Olabegoia farmazian dihardu.



Leioako Campuserako autobus zuzena

Udalak eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibuseko UPV/EHU Leioa linea Eibarreraino zabaldu dau eta atzotik autobusak zerbitzua eskintzen dihardue. Eibarko ikasliak Ego-Gainen hartu leikie Leioara juateko autobusa, goizeko 6:30ean eta 7:30ean. Autobusa, Ermura bidian, Unibersidadian be geldittuko da. Leioatik Eibarrera bueltatzeko, barriz, lau autobus dagoz aukeran (13:10, 15:10, 18:10 eta 20:30). Unibersidadeko ikasliak osatutako Bikain alkartiak oin dala hillebete batzuk laga zetsan Donostia eta Bilboko campuserako zerbitzu zuzena eskintziari eta harrezgero Eibarko ikasliak unibersidadera juateko autobus zuzen barik egon dira.

Jose Miguel Amostegik be jaso eban Fisioterapeutena

Oin dala hillebete batzuk, bestalde, jaso zeban CRF Amostegui zentroko Jose Miguel Amostegi zuzendarixak Euskal Herriko Fisioterapeuten Kolegixo Ofizialeko Batzarrian emon zetzen sarixa. Fisioterapiako Euskadi I. Sarixak banatu ziran ekitaldixan, arlo horretako ibilbide profesional hoberenarena jaso zeban eibartarrak.



Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntasuna

Udalak diruz lagunduko dittu herrixan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen daben famelixetako umiak, eskolaz kanpoko jardueretako (Afariketean, Multikirolak, Musika, Zeramika eta Margo Udal Eskoletako matrikulak...) matrikularen %70 pa-

gauta. Udalak 20.000 euroko aurrekontua dauka horrelakueri erantzuteko, baiña premiña pentsatzen dabena baiña haundixagua bada aurrekontua gehittuko dabela aurreratu dabe. Laguntasuna urtia amaittu aurretik pagatzeko asmua dake. Ekime-

na PSE-EEk eta EH Bilduk bideratutako aurrekontu-hitzarmenak jasotzen dabenari jarraituta garatuko dabe, koaliziño abertzaliak urteko aurrekontuaren proposamenari horren gaineko zuzenketia egin eta onartu zetsen eta.



Kurdistanen hasi eta Coimbran (Portugalen) amaituko den IV. Emakumeen Mundu Martxa irailaren 28an hasi zen Euskal Herria zeharkatzen. Hainbat herritan izan ondoren, urriaren 4an azkenik Bilbok hartuko du ekamukeen eskubideak aldarrikatzen dituen karabana. Eibarren lanean diharduten emakume taldeek bat egin dute Euskal Herrian antolatutako ekitaldietan parte hartzeko, eta guzti honen berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuten asteartean. Ondoren, Zuloaga parkean "Gure haziak, gure etorkizuna" izeneko ekitaldi sinbolikoa egin zuten.

Eibar ere Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxan

Eibarko Emakumeen Mahaia osatzen duten emakumeen elkarteak, elkar-terik gabeko emakumeak eta Udaleko Berdintasun eta Gizartekintza sailetako ordezkariak Andretxean elkartu ziren joan den asteazkenean Emakumeen Mundu Martxari buruko prentsaurrekoa emateko. "Mundu martxaren helburua mundu mailako mugimendu feministaren batasuna lortzea da, eta, gure inguruan, emakume taldeen sarea sustatzea", azaldu zuten. Eibarko emakumeek inguruko herrietako emakumeekin elkarlanean jardun dute eta elkar ezagutzeko aukera paregabea izan dute. Joan den asteazkenean, prentsaurrekoaren ondoren, haziak landatzen jardun zuten Zuloagatarreneko parkean, eta gaur, ostirala, Bergaran izan dira karabanari ongietorria egiten eta elkarrekin bazkaltzen. Domekan (urriak 4) ekitaldi nazionala egingo da Bilbon eta hara joateko autobusak antolatu dituzte Andretxetik. Horrek guztiak prestaketa lana dakar, eta horretan aritze hutsa aktibazioa tresna ezinhobea da.

Mundu martxa 2000. urtean sortu zen eta lau ildo nagusi ezarri ziren: ongizatea eta elikadura burujabetza; bakea eta desmilitarizazioa; emakumeen kontrako indarkeria eta gorputz eta sexualitate askatasuna; eta emakumeek historikoki egin dituzten lanak erdigunean kokatzea. Abiapuntua 1995ean Quebecen indarkeriaren aurka egin zuten Ogiaren eta Arroren Martxa izan zen. 15.000 lagun elkartu ziren eta ikustarazi zen zein garrantzitsua den mundu mailako aliantza sustatzea.

2000. urtean egin zen martxak Euskal Herrian ere izan zuen eragina eta handik sortu zen 2003ko Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna. Bertan zehaztu zen saretze hori nola egin.

Egunotan Euskal Herria zeharkatzen diharduen Emakumeen karabanaren aldarrikapenetako bat elikadura burujabetzarena da, eta horri lotuta, hazien afera. Andretxean izandako prentsaurrekoan adierazi zuten, "elikadura-subiranotasuna aurtengo martxaren ardatza da. Gure lurretan ere aske bizitzeko eta horien jabe izateko eskubidea aldarrikatu behar dugu. Emakume baserritarrek aliantzak sortzeko balio izan du, euren egoera ezagutzeko eta ezagutarazteko eta kontzientzia hartzeko zein garrantzitsua den bertako haziak izatea eta bertan sortutako produktuak kontsumitzea". Zentzu honetan, datorren urriaren 15ean Eusko Legebiltzarrean izango den bozketan Emakume nekazarien Estatutua onartzea espero dute.

Gazteak eta indarkeria sexista

Beste arlo garrantzitsu bat indarkeria sexista da: "Indarkeria matxistak hildako emakumeen adina gero eta baxuagoa da. Horregatik oso inportanteak dira gazteenentzako kanpainak. Gazteei indarkeria sexistari aurre egin ahal izateko baliabideak eskaintzen jakin behar dugu. Horretarako hor dago, esate baterako, Emakumeentzako Jabetze Eskola edota Udaleko Berdintasun Saitetik eta Gizarte Zerbitzuetatik ikastetxeetan eskaintzen

diren genero arteko biolentziari buruzko ikastaroak".

Emakumearen aurkako indarkeria mundu mailako arazoa da, baina ez da gauza bera Kurdistanen edo hemen, "horregatik aldarrikapenak perspektiba desberdinetatik egin behar dira".

Berdintasunaren arloan oraindik ibilbide luzea daukagula uste dute Eibarko emakume taldeek. Euren esanetan, "Oraindik 'feminista' hitzak kalanbrea ematen jarraitzen du. Askok ez dute ulertzen zer den feminismoa, baina arazoa zuzenean bizitzen dutenean, gauzak beste modu batean ulertzen hasten dira. Ezin gara konformatu daukagunarekin, egunero jarraitu behar dugu lanean, emakumeon aldarrikapenak eguneroko lana izan behar du, eta hau asko lantzen dugu Eibarko Emakumeen Mahaian".

Zezen Bideko Andretxea txiki

Eibarren, gaur egun 9 emakume talde daude: Pagatxa, Lacasiun, Defibel, Mujeres al Cuadrado, Safa, Altzoa, Isiltasuna Hautsiz, Hitzez eta Nalua. Gainera elkarterik gabeko emakume independenteak daude. Guztiak Zezen Bide kalean dagoen Andretxean egoten dira. Bertan ikastaro, hitzaldi, bilera eta beste hainbat gauza egiten dira. Lokala oso txikia gelditu zaie: "modu batean edo bestean konpontzen joan gara, egutegi batekin antolatzen gara, eta nahiz eta gure jarduerak aurrera eman ahal izateko beste espazio batzuk ere lagatzen dizkiguten, lokal handiago eta egokiago baten beharra azpimarratu nahi dugu".

Atzo, urriaren 1ian, bete zittuan Zezenbide kalian dagan Radio Eibarrek 25 urte. 1990eko egun berian hasi eben emisora horretako programaziñua, "udan hainbat probatan jardun eta gero". Holan diño urte guzti hauetan horko instalaziñuetan egunero biharrian jardun daben Juanma Canok: "Radio estudio moduan hasi giñan, gero Radio Estudio Cope izan zan eta, azkenik, 2002ko amaieratik Radio Eibar Cadena SER izatera pasatu giñan". Asmua dake, modu batian edo bestian, mende laurdena bihar dan moduan ospatzeko: "Hori azaruan egingo dogu, estatu maillako programa bat edo, ahal bada SER kateko izen haundi batekin: Angels Barceló izan leike akaso... Eta mailla lokalian be zeozer berezixa egitteko asmua dakagu". Gaur egun lau bihargin dagoz emisoran: bi kazetari lanetan eta beste bi lan komertziala egitten dabenak. Pozik eta lanari ekiteko gogotsu aurkittu dittugu. Zorionak!

Juanma Canorekin dihardu kazetari lanak egitten Sol Grajera egun hauetan. Eta publizidadia eskuratzen ahalegintzen dira Iruñe Garramiola eta Luis Garcia. Laukotiak euren arteko hartuemon estuari heltzen detsa eta hori hasieratik izan daben balorietakotzat daka Canok: "Giro hori nagusixa izan da gure artian eta, horri esker, bekaduneri ez jakue gatxa egin integratzia". Sol Grajera, esaterako, febreruan etorri zan gurera Extremadurako Meridatik ordura arte Marta Quintinek -bekaduna hura be- egindako biharrekin jarraitzeko eta febreruan amaittuko jako urtebeteko etapa hau. Pozik dago esperientziarekin: "Nafarroako Unibersidadiak Cadena SER-ekin dakan akordixuaren ondorioz tokau



Borja Rodriguez apirillian hasi zan Radio Marcan, aurrez beste emisoratan jardun eta gero.



Iruñe Garramiola, Mateo Guilabert, Sol Grajera eta Juanma Cano katiaren estudixuetan.

Emisora baten mende laurdena

jatan hona etortzia eta asko ikasi dot Eibarren. Hiri txiki batian eta emisoria be txikixa izanda, arlo asko ikutu bihar dittuzu, danetarik egin biharra tokatzen jatzu. Aukera politta da benetan. Eta irratixa oso gustokua dot".

Juanmak be ondo gogoratzen dittu hasierako urtiak, "Jose Luis Martin -gaur egun Gasteizen dago- zuzendarixa zala eta Joseba Ibabek Los Super Trepa musika arrakasten zerrendia egitten zebanian". Emisoria Frekuenzia Modularreko -FM- 104.00 puntuan hartu leike eta programaziño lokala eskintzen dabe egunero 12.20tik 14.00ak arte. Cano, dana dala, goizian goiz juaten da emisorara "zazpirak hamar gutxiaguetan tenperatura emoteko". Gero,

herriko barrixen aurrerapena egitten dabe 07.20ren bueltan hasi eta zazpi t'erdixak arte, eta gabian gauza bera, "egunian sortutako barrixakin", 00.00ak izateko bost miñuturen faltan.

Juanma Canok irratixan izandako esperientzia pertsonalian "politikuekin baiño, aktoriekin izandako alkarrizketak" nabarmenduko leukez batez be: "Nuria Espert, Adolfo Marsillach, Albert Boadella, Echanove... hala-

kuak badake zer kontatu". Irratixa bere estilo bizitzat hartzen dau, "nire ametsetako ametsa errealidade bihurtuta". Jendiak irratixari emoten detsan garrantzixa azpimarratzeko, "Irratixan esan dabe" zein zabaldua dagan gogoratzen desku.

Irratixaren aurrekarixak Eibarren

Eibarren lehelengo irratia emisora instalatu zebela 50 betetzen zirala ospatu zeben 2003an "Irratixaren 50 urtiak, Portaletik zuzen-zuzenian" egitarauarekin. Oin dala hamabi urte burututako ekimenian hainbat programaziño egin ziran orduko martxuan eta apirillian banatuta.

1953an EAJ-42 Radio Juventud de Eibar Cadena Azul-en emisora ipiñi zan martxan. Handik sei urtera, 1959xan, don Pedro Gorostidik Arrate Irratiaren eskutik euskeraz egin zittuan lehelengo emisiñuak. 90eko hamarkada hasieran, azkenengo frekuentziak banatu ziranian, Radio Estudio eta Onda Cero Radio sortu ziran: bigarren honak urtiak dira tokiko informaziñua lantziari laga zetsala. Horrez gain, Pottoka Irratia (80ko hamarkadan), Matrallako Irratixa, Formula Hit Gipuzkoa musikala eta Amaña eta Radio Master, azken hau Unibersidade Laboraleko emisora, modukuak be euren txokua izan dabe urte hauetan.

Mateo Guilabert izan da norbait

Irratixaren munduan urte askuan jardun dau Guilabertek. Eta jarraitzen dau oin-diokan, kolaboratzaile gisa, bai Radio Eibarren eta baita Radio Marcan. Kazetari-zako hainbat esparrutan jardun izan dau bere bizitza osuan Mateok eta, horrek bul-tzatuta, laga eban Alfako biharra, Radio Ju-ventud-en hainbat urtetan kobrau barik jardun ondoren. Ondo gogoratzen dau, mi-ñez oindiokan, Bidebarrietan zeken emi-soria zelan itxiarazi zetsen: "Berrogei ur-tian martxan egon eta gero, 1993ko juli-xuaren 24an jaso genduan itxeko agindua, Jordi Garcia-Candau sasoi hartako RTVE-ko Zuzendari Nagusixak emondakua. Ha-ren buru argixak 60.000 biztanle izatera iristen ez ziran herrixetako emisora guztiak itxeko erabagixa hartu eban eta hori ger-tau jakuen gure moduko beste 23ri be. Au-



Mateo Guilabertek eguazteneko kolaboratzen dau, Felix Elkoroiriberekin batera. Cano oso pozik dago "fitxajekin", erraz egiten dabelako berba eta asko dakelako kontatzeko.

retik iñolako abisurik jaso barik. Ondoren, hillabete batzuetan ja-rraittu genduan lantokira juaten, nahiz eta ezin genduan gure biha-rra izan bihar zana egin". Udaletik ez zebela iñolako laguntzarik jaso diño Mateok.

Programaziño osua zeken ordu-ko Radio Juventud-en. Goizian hasi eta 13.00ak arte lehelengo eta, arratsalde, 19.00etatik 22.00ak arte. Hori bai, orduro Radio Nacio-nalekin konektatzen zeben "bole-tin informatibuak emoteko. Meza Nagusixa transmititzia be biharrez-koa zan eta errosarixuak be emo-ten genduazen. Azken hauek kentzerakuan izan zan jendia kejau jakuzena". Aurrera-pen teknologikuak aittatzen dittu Mateok jauzi nabarmen moduan: "Ni hor ibilli nin-tzan San Andres parrokixatik botatako ka-ble bati tiraka karrera bat kubritzeko".

Arrate Irratia eta Radio Marca

Arrate Irratia dogu herrixan goizeko 08.00etan hasi eta gabeko 22.00ak arte bere osotasunian euskarazko programaziñua eskintzen dabena. Gabeko beste hamar orduak "Izarretik Eguzkira" musika saiu-a-rekin betetzen dittu. Frekuenzia Modula-dako 93.6 puntuan topau leike eta Euska-di Irratiarekin konektatzen dau orduero boletina emoteko. Oin sei lagun dagoz bertan biharrian, "udan zazpi be egon ga-ren arren", Agurtzane Urriolabeitiak esan deskunez. Bazkidiak 20 euroko kuotia or-daintzen dabe urtero eta emisoria oso on-



Bernardo Ibarak zuzentzen daben Arrate Irratiak tinko eusten detsa euskarari don Pedro Gorostidiren lekukua hartu zebanetik. 1978tik ez dau kalerik egin emisorak.

do entzuten da "Gasteizera arte, baita Bil-bon eta Donostian". Bernardo Ibarak zu-zentzen dau eta programaziño finkuarekin jarraitzen dabe, hainbat esparru betez. Entzulien artian danetarik daguala diñue, "gehixen parte hartzen dabena nagusixak badira be".

Radio Marca 100.8 puntuan hartu leike eta Borja Rodriguezek darama bertako ar-duria apirilletik hona. Esperientzia haun-dixa daka irrati munduan ...eta kitto!-tik pasatutako kazetarixak: "Aurretik Formula Hit-en eta Happy FM-n izan nintzan, au-ker a barri hau sortu baiño lehen". Euskadi Irratian eta Herri Irratian be egin dittu be-riak Borjak eta gaur egun herriko informa-ziñua jasotzen dau egunero 13.00etatik 14.30era arte Directo Marca Eibar progra-marekin. "Eguenetan tertulixia izaten do-gu; horrez gain, jakiña, Eibarren partidu guztiak kubritzen dittugu".

Nafarroa
ELIZONDON
Oinez

urriaren 18an
denok Baztanerat!

12 eurotan
Ego-Gainetik
AUTOBUS

Buelta:
19.00etan

Irteera:
08.30etan

zerBITZUA

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

Funeraria Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Irailaren 14an abiatu zen 'Gu ta Gutarrak' saioaren (astelehenetik eguenera, 21:20ean ETB1en) laugarren edizioan Jone de la Calle eibartarrak parte hartzen dihardu, beste hamaika lehiakiderekin batera. 21 urteko gazteak administrazioa ikasten dihardu eta, horrez gain, emakume bat zaintzen du. Izan ditu proposamenak argazkietarako modeloa izateko eta motokrosa da bere zaletasun handiena. Telebistako esperientziak jardun dugu berbetan.

- Nola animatu zinen telebista-ko lehiaketan parte hartzera?

Saioko arduradunak nirekin kontaktuan ipini ziren Facebook-erako idatzita, parte hartzeko proposamena egiten. Ekaina zen, klaseak amaituta zeuden eta, lagunak animatuta, proba-tzearren aurkeztu egin nintzen. Horrela izan zen!

- Nolako esperientzia da Gu ta Gutarrak?

Kristorena! Eguen eta barixakuetan grabatzen ditugu saioak. Horrekin batera, asteburu batean jai izaten dugu eta bestea Orion ematen dugu, aterpetxean. Hamabi 'gutar' gara, talde bitan banatuta gaude eta hainbat proba egiten joan behar dugu. Horiek irabazita sari ezberdinak eskuratzen goaz. Abendura arte emango dute saioa eta, bien bitartean, batek daki zer gerta daitekeen, tartean jendea kanporatzen eta berriak sartzen joango dira eta.

- Nolakoak dira beste 'gutarrak'?

Saiora ailegatu nintzenez ez nuen inor ezagutzen. Nik motorraren kaskoa jantzita nuen, ez nekien zer nuen inguruan... Uretara salto egiteko esan zidaten, Josu aldamenean nuela jakin barik... Berak besoetan hartu eta uretatik etara ninduen, bideoa ikusiz gero pelikula bat dirudi, baina guk ez genekien ezer! Hortik aurrera gure artean

zerbait zegoen ala ez, saioko jarraitzaileen artean, Twitter eta bestelakoetan horrelako kontuak bata bestearen atzetik hasi ziren.

- Nolatan zaletu zinen motorrerekin?

Kalean, motorrekin pasatzen ziren bakoitzean begira gertzen nintzen beti. Gero, motordun mutil batekin irtetzen hasi nintzen eta, gurasoek ezer jakin barik, motorra erosi eta berarekin ikasten hasi nintzen eta gero nere kabuz jarraitu nuen. Baina Eibarren eta inguruan ez dago motokrosean jarduteko aukera handirik.

- Argazkietarako modeloa ere izan zara...

Modaren mundua gustatzen zait, baina txikiagia naiz modelo moduan jarduteko. Hala ere, kamera aurrean ondo ematen dut eta argazki-sesio batzuk egin ditut dagoeneko.

- Etorkizunean telebistan jarraitzea gustatuko litzaizuke?

Orain arte oso gustora nabil eta horretan beharrean gustora jardungo nuela uste dut. Saioa jarraitzen dutenek kalean ikusten nautenean ezagutzen hasi direla konturatu naiz, baten batek argazkia egiteko ere eskatu dit... Saioa era guztietarako jendeak ikusi arren, jarraitzaile gehienak oso gazteak eta benetan jatorrak dira.



Jone de la Calle
(GU TA GUTARRAK SAIOAN)

“Telebistan oso gustora nabil; jarraituko nuke”

Itzadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelertatik euskarara, eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Eibarren ere Beldur Barik lehiaketa martxan

Seigarren urtez antolatu dute Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketa, "sexismoa eta indarkeria sexistaren kontrako jarrera eta mezuak erakutsi nahi dituzten 12 eta 26 urte bitarteko gazteentzat".

Bakarka zein taldeka (elkarte bezala, ikastetxeko gela) har daiteke parte eta, adinaren arabera, kategoria bi bereiziko dituzte: lehena 12-17 urte bitartekoentzat eta bigarrena 18-26 urte bitartekoentzat. Jarrera eta mezuak zabaltzeko orduan, antolatzaileek era guztietako adierazpen artistikoak onartuko dituzte, beti ere ikus-entzunezko formatuan aurkezten badira: flashmob-ak, kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-tes-tuak, argazkiak, argazki-muntaiak, fotono-belak, lipdubak, dantzak, film laburrak, animazio proiektuak, proiektuak edo arte-lanak bideoan aurkeztea, performanceak eta kaleko esku hartzeak...

Ikus-entzunezkoa egiteko aukeratzten den adierazpidea edozein dela ere, lanak bideo-plataforma batera (Youtube edota Vimeo-ra) esteka jarritz aurkeztu behar dira eta pertsona edo talde bakoitzeko hiru proiektu onartuko dituzte gehienez. Parte hartu nahi dutenek www.beldurbarik.org webgunean, lehiaketari eskainitako atale-



an dagoen formularioa bete beharko dute. Lehiaketari buruzko argibideak eta bete beharreko baldintzak ere helbide horretan daude eskuragarri.

Herri mailako saria

Bestalde, azken urteotan egindakoaren bidetik, sari orokorraz gain Eibarren erroldatuta daudenentzat "Eibar Beldur Barik 2015 Saria" abiarazi du Udaleko Berdintasunerako Sailak, "udalerrian proposamenak bultzatzeko eta sustateko asmoz". Antolatzaileek argitu dutenez, "Eibarren

erroldatutako pertsonen, www.beldurbarik.org webgunean lehiaketa orokorrerako formularioa betetzearekin nahikoa izango dute, zuzenean bi lehiaketetan parte hartuko dute eta".

Lanak jasotzeko epea azaroaren 11an amaituko da (Eibarko kasuan, lanak urriaren 13rako, 14.30etarako Pegoran entregatu beharko dira) eta Euskal Herri mailako irabazleentzat sari garrantzitsuak banatuko dituzte (500 euro kategoria bakoitzeko lehen saria eskuratzen duenarentzat eta 300 euro aipamen berezia jasotzen duteentzat). Gainera, Eibarko irabazleentzat 400 euroko erosketa-txartelak emango dituzte. Argibide gehiagorako www.beldurbarik.org helbidean begiratu daiteke.

Bideogintza ikastaroa gaztelekuan

Bestalde, lehiaketan parte hartzea errazteko asmoz, 12-18 urte bitarteko nerabeentzat bideogintza ikastaroa antolatu dute gaztelekuan, Andretxearekin batera. Itziar Bastarririk emango ditu klaseak, Indianokua gaztelekuan, urriko barixaku eta domeketan (9, 11, 16, 18, 23, 25 eta 30ean), 17.30etatik 19.30etara. Izena emateko epea domekan (urriak 4) itxiko da eta ikastaroa doakoa izango da.



Ikasturte hasiera Arraten

Urtero bezala, La Salle ikastetxekoek Arratera egindako irteerarekin ekin zioten kurtsoari: "Santutegia bisitatu eta Eibarko 'amatxoren' bedeinkapena jasota, eskaintza ospakizunean ikasturterako helburuak eta La Salle ikastetxe guztientzat gogoeta eta ekintza gaia izango dena, 'Ezagutu, zeureganatu, eraldatu: premiazkoa da eta bidezkoa' goiburua aurkeztu zizkiguten".



**plancha
LARRUGA**

ORIGINALA eta Eibarren



**PLANTXA-LAN
ZERBITZU AZKARRA**



**628 092 147
943 207 829
608 055 302**

info@planchalarruga.com

Sostoatarren, 2

inoiz IKUSI GABEKOA!!!

**ETXEAN JASOTZEA
ETA ENTREGATZEA
iIDOAN!!**

Ez da oso ohikoa negozio batek mendea betetzea, baina Estaziño kaleko Valle tabernak 100 urte bete ditu eta, jakina, ospatu egingo du. Horretarako gaur arratsaldean abiatuko den egitaraua prestatu dute: gaurko txikiteoa "magikoa" izango da, 19.30etik aurrera Tor magoak ume guztiarentzat ikuskizuna doan eskainiko du eta. Mendeurrena ospatzeko jarduerak urriko asteburuetan jarraipena izango dute, Miguel Espilla tabernaren sortzailearen bilobak kontatu digun moduan.

100 urte Estaziñuari begira

Historian atzera eginez, Espillak aitxixta-amamak taberna 1915ean nola sortu zuten ekarri digu gogora: "Aitxixta, Pedro Astigarraga Lezeta, Estaziñoaren atzeko aldean dagoen Ibargain baserriko laugarren semea, gazteena zen. Maiorazgoa indarrean zegoenez, baserria laga eta eskopetak egiteko tailerra sortu zuen. Maiorazgoarekin galdutakoa moduren batean orekatzeko edo, tren geltokiaren parean etxea jaso zuten eta etxeen azpian sagardotegia eta gaseosa fabrika zabaldu zituzten. Aitxixta oso sukaldari ona zen; Telesfora Juaristi Mendizabalekin ezkondu zen eta, biek elkarrekin, taberna zabaldu zuten. Jatorrizko izena, baina, baserriarena izan zen, hau da, Ibargain ipini zioten".

Valle izena, hain zuzen ere, tabernako arduradunak aldatzean hartu zuen: "Bizi izan zen artean, 1947ra arte aitxixta izan zen jabea eta, hura hiltzean, jabetza amamaren eskuetara igaro zen, 1970ean amama hil

eta Paco Valle taberna alokairuan hartu zuen arte. Berak aldatu zion izena eta gaur egun bere alabak, Elenak egiten du beharra tabernan".



Ibargain baserriko semerik gazteenak sortu zuen taberna. SILBIA HERNANDEZ

Espillaren umetako oroitzapenak tabernari eta Estaziño kaleari lotutakoak dira: "Sasoi hartan Estaziño kalea oso garrantzitsua zen Eibarren, besteak beste tren geltokia han zegoelako. Bidaia-irak atzera aurrera ibiltzeaz gain, inguruan lantegi garrantzitsu asko zegoenez gogoan daukat no-

la etortzen ziren zalgurdiak merkantzia bila, tren geltokian hartu eta lantegietara eramateko. Jende mardoa ibiltzen zen beti".

tabernan zuen egoitza soziala, han batzen ziren. Eta han inguruan ibiltzen zen El Gallo izeneko koadrila bat. Koadrilaz gain, El Gallok foball taldea ere bazuen. Halako batean, biek bat egitea erabaki zuten eta horrela sortu zen Eibar foball taldea".

Mendeurrena ospatzeko programa

Mendeurrenaren harira, gaur arratsaldean Tor magoak giro-tuko duen txikiteo berezitik kanpora, bestelako jarduerak prestatu dituzte: hilak 9an (barrixuan) 19.30etik aurrera pintxo-pote berezia eskaintzeko asmoa daukate, Juanma Cano DJ-k girotuta; hilak 16an, berri, Jerez de la Fronteratik etorritako aditu batek urdaiazpikoa moztuko die pintxo-potera gerturatzen direnei; eta hilaren 17rako omenaldi-bazkaria antolatu dute.

Espillak azaldu digunez, "Eibar foball taldeko jarraitzaileen artean badago Ibargain izeneko gazte talde bat eta euren omenaldi modukoa egin nahi diegu. Egun horretan jokatu den Eibar-Sevilla partidua aurretik bazkaltzeko marmitakoa emango diegu. Eta, horrekin batera, Estaziño kalean eta inguruan Ustekabe fanfarrearekin eta Musika Eskolako trikitilariekin kalejirak egingo dira".



Irudian oraindik ez dago tabernarik, bost urte geroago sortu zen-eta.



Urriak 3 zapatua

TXOTX!



BI **TIKET** MOTA
IZANGO DIRA:

6 eurokoa

(edalontzia, zapia, pintxoak
eta **DASTATU SAGARDOA**)

1'5 eurokoa

(pintxoak: txorizoa edo
gaztaia eta menbriloa)


Aurtengo berrikuntzak

Aurten badago berritasunik: goizez plaza biak, udaletxe parekoa eta jubilatuek etxe aldamenekoa erabiliko dira. Udaletxearen aldean betiko moduan sagardoa edan eta pintxoak jateko aukera izango du jendeak eta beste plazan, berriz, hiru sagardogile egongo dira. Gainera, matxaka eta dolarea ipiniko dira jendeak prozesua bertatik betara ezagutzeko eta irtetzen joango den muztioa edateko aukera izan dezan. Horretaz gain, sagar mota ezberdinekin erakusketa ipiniko da. Egitaraua biribiltzeko, txalapartariak eta musika eskolako soinu-joleek jardungo dute eta umeendako hainbat joko ere antolatu dira.




22. edizioa > 2.340 sagardo boti

Goiz eta arratsaldean: Udaletxeko plazan



Goizez: jubilatuen etxeko plazan



#SagardoEguneko "selfie" lehiaketa

Bosgarren urtez jarraian, aurten ere sare sozialetan jarraipen berezia egingo diogu biharko egunari, #SagardoEguna traola erabilita. Facebook-en, ...eta kitto!-ren orrialdean (www.facebook.com/etakittoaldizkaria) zein Twitter kontuan (@etakitto) Untzagan nolako giroa dagoen kontatzen, argazkiak sartzen... joango gara, zuekin partekatzen. Baina giroa bete-betean bizi duzuenak zuek zarete eta, horregatik, berriz ere Sagardo Eguneko "korrensponsal" izatea eskatu nahi dizuegu, zuen komentario eta argazkiekin egunaren kronika paregabea osatzea lortuko dugu eta.



lazoaren bidetik, aurten ere "selfie" lehiaketa antolatu dugu eta, horregatik, argazkiak ateratzen "selfie" itxurakoak egitera eta gurekin partekatzen animatu nahi zaituztegu, irabazleak Gorenak elkarteko 13 sagardotegietako botila bana jasoko du. Zozketa urriaren 7an, datorren eguaztenean egingo dugu.

Zuek bidalitako argazkiak eta gure argazkilariek egun osoan egindakoak batuta, egunari buruzko bilduma osatu eta Facebook-eko gure orriari ikusgai ipiniko ditugu bihar bertan. Animatu parte hartzera, sari ederra eraman dezakezue eta!



Sagardoen euskal selekzioa Eibarren

Asko dira Euskal Herrian egiten eta merkaturatzen diren sagardoak, guztiek ez dituzte baina ez ekoizpen prozesu berak jarraitzen eta ez kalitate maila bera ematen.

Horregatik, 2007. urtean **Sagardo Mahaia** elkarteak sortu zuten sagardogile ezagun batzuk: "sagardozaleari sagardorik onenak

bermatzeko, eta sagardoaren sektorea indartzeko". Sagardoaren kalitate gorena ematea da beren obsesioa, eta horretan ari da lanean etengabe: aitzindaria da I+G+b (Ikerketa + Garapena + berrikuntza) sagardogintzan lantzen, sagastien eta sagardoaren lanketarako neurriak ere hartu ditu, eta abar.

Lan horren guztiaren fruitu da "**Euskal Herriko Sagardo GORENAK**" marka. Izenak berak dioten bezala, bertakoak eta kalitate gorenekoak diren sagardoak identifikatzen dituen marka da. GORENAK txapela daraman sagardo botila bakoitzak kalitate kontrolak gainditu, eta nota onak atera ditu Fraisoro Laborategiko dastaketa akreditatuetan. Gutxi ziurtatu dezakete hori. Horregatik da GORENAK sagardoen euskal selekzioa.

Kalitate kontrolak hiru dira nagusiki:

- Sagardo Mahaia elkartearen barne araudia: sagar homologatua, ez azukrerik, ez karboniko erantsirik, osorik bertan ekoiztutako sagardoa...
- Fraisoro Laborategiko analitika kontrolak: pH-a, azidotasuna, azido azetikoa, glukosa, fruktosa, dentsitatea, burdina...
- Fraisoro Laborategiko dastaketa akreditatuetan nota altua. ENAC zertifikazioa duen zentro homologatua da Fraisoro Laborategia, 2014. urtetik. Eta horrek berme ofiziala ematen die bertako dastaketa ebaluazioei.

13 sagardotegik osatzen dute "sagardoen euskal selekzioa": Alorrenea, Altzueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-Luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola, Zapiain, Zelaia.

Guztiak izango dira Eibarren bihar, zapatua.

GOIZEZ:
12.00etatik 14.30etara

ARRATSALDEZ:
19.00etatik amaitu arte
Edalontzi salmenta 18,30ean hasiko da

Sagardoa euskal edari nazionala izan da mendeetan. Baina orain hala da? Izango ote da noizbait berriz?

Adituak ez dira ados jartzen sagardoa Euskal Herrian noiztik dagoen zehazterakoan, baina mendeak daramatzagu euskaldunok sagardoa egiten eta edaten. Hamar mende baino gehiago.

Oraindik edaten dugu, batez ere udan, eta urtero joaten gara neguan sagardotegietara txotx garaian, baina zer dakigu gure edari nazionalaz? Zenbat edaten dugu urtean zehar? Ez ote ari zaigu gertatzen sagardoarekin euskararekin bezala, maite bai baina erabili ez dugula hainbeste egiten?...

Hamarkada gutxitan gainbehera handia bizi zuen sagardoak gure artean. XX. mende hasieran, Gipuzkoan, 50 bat botila edaten genituen pertsona bakoitzeko batzbeste. Sagardoa oso sartuta zegoen gure etxeetan. 60ko hamarkadan, ordea, botila batera jaitsi zen batzbesteko hori. Sagastiak kendu zituzten gure baserriar askok, pinuak sartzen hasi zirelako; garagardoak eta edari frexkagarriek gora egin zuten... Ondorioz, ia zeharo galdu genuen sagardoaren kultura.

Baikortasunerako daturik ere bada baina. Sagardoetxearen arabera, gaur egun, 9 bat botila edaten ditugu pertsonako urtean batzbeste. Oso poliki bada ere, ematen du biziberritzen ari garela gure sagardoaren kultura...

Sagardoa EHan ez da produktu hutsa. Sagardoak balio gastronomikoa du, jakina. Gozoa da, alkohol gutxikoa, frexkagarria, osasungarria. Baina horrez gainera, tradizioa eta kultura ere bada guretzat sagardoa. Euskal Herriko sagastiak, sagarrak, gure mendi eta baserriak... Horiek guztiak daude gure sagardo edalontzi bakoitzaren atzean.

Bihurtuko ote sagardoa berriz gure edari nazionala? Ala bigarren mailara kondenatuko dugu betiko, ardoen, garagardoen eta frexkagarrien azpitik?...



13 sagardotegi Gorenak

Alorrenea (Astigarraga) **Altzueta** (Hernani) **Barkaiztegi** (Donostia) **Begiristain** (Ikaztegieta) **Egi-Luze** (Errenteria) **Gartziategi** (Astigarraga) **Gaztañaga** (Andoain) **Gurutzeta** (Astigarraga) **Isastegi** (Tolosa) **Olaizola** (Hernani) **Sarasola** (Asteasu) **Zapiain** (Astigarraga) **Zelaia** (Hernani)

Gurean Mendigoitxin egiten dute sagardoa

Bada gure herrian sagardoa aspalditik egiten duten base-rririk: Arrate bailarako Mendigoitian, hain zuzen. Vicente Aretak gogoratzen duenez, “betidanik egin dugu, aititaren sasoiak gogoratzen dudanez”. Dena dela, ez dute kanpora saltzeko ohiturarik: “Etxerako egiten dugu bakarrik. Sasoi batean sagarrak urtero batzen bagenituen ere, azken urteotan urte birik behin egiten dugu, sagarrondoei ere atseden ematea komeni baita”. Horrela, aurten jai hartu dute eta iaz jasotakoa jarraituko dute kontsumitzen. Aurreko urteotan 3.000 litroren bueltan jaso dituzte eta iaz “zortzi barrika bete genituen, 250ekoak, etxerako. Beste lau barrika, hau da, mila litro, Argiñaoa joan ziren”. Hori bai, etxean ez dituzte hainbeste sagar batzen: “Auzokoek ere ekartzen dizkigute, alferrik galdu ez daitezten. Etxean ez ditugu hainbeste sagarrondo eta, sagar-



Badira urte asko sagardoa egiten dutena Mendigoitxi baserrian: azken aldian, urte bitik behin. Inguruko baserrietatik ere laguntzen diete.



doa egiteko, sagar gazia ere behar da; horregatik ekartzen ditugu Mandiolatik-eta”

Dolarea dute base-rrian, aurten jai hartu duen dolarea. “Egia esan, ez du zainketa berezirik behar”. Sagarra jasotzen “Pilarika ostean” hasten dira, “Domusanturainoko tarte horretan”, freskatzeko hasten den sasoi egokiena delako:

“Sagarra garbitzen laguntzen du”. Gero apurtu eta “kolorea hartu dezan” itxaron behar da, hasierako gozotasuna galtzen joan eta sagardoa sendotzen joan arte. Errege inguruan heltzen da barrikan sartzeko sasoi. Hemen izaten dugun eguraldiei aproposa deritza Aretak: “Aurten ere, izan ditugun bero handiekin, eguzkiaren gozatzeko aukera emango zien sagarrondoei. Sagardo ona izango da aurtengoa”.

Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek dituzten sagardotarako sagarrondoetan azken urte hauetan eginiko ikerketen emaitzen ondorioz, sagar-klase hauek ei dira sagardotarako egokienak: garratzetan, errezil-sagarra, manttoni, txalaka, udare-sagarra, berde-mikatza, txistu-sagarra, boskantoi eta urtebia; mikatzetan, gezamina, haritza, urdin-sagarra, Azpuru garratza eta Goikoetxe-sagarra; eta gozoetan, txori-sagarra, mozoloa, gorri txikia, patzoluia, Bizkai-sagarra eta Aia-sagarra. Leku bakoitzean sagardo desberdina izan ohi bada ere, orokorrean honako nahasketa hau jotzen da egokitza: %50 sagar garratzak, %30 mikatzak eta %20 gozoak.

Euskal Herrian sagardotarako sagarrondoak 400.000tik gora dira. Gipuzkoa da gehien duen lurraldea: 1982an 222.000 sagarrondo zeuden eta 1997an 265.000. Bizkaian azken urte hauetan sagardotarako 28.000 landatu dira, Enkartzioetan batik bat. Lehendik daudenak ere kontuan

hartuta, Bizkaian (Lea-Artibain, batez ere) 100.000 sagarrondo daudela esan daiteke. Nafarroako iparmendebaldean eta iparraldean 50.000 sagarrondo daude, gutxi gorabehera.

Sagardogintza tradizionalen honako **faseak** desberdindu daitezke: **Sagar-bilketa** (eskuz edo kizkia bidez eta sarea edo kirtendun saskiaz), **Sagar-jotzea** (sagarra zanpatu edo hautsi egin behar da, gaur egun eskuzko edo motoredun makinaz egiten dena), **Dolareko lana** (zanpatzeko dolarearen ardatzaren bueltan pilatzen da, patsa osatuz, eta sistema hori eskuz edo motorez eragin daiteke), **Muztietik sagardora** (dolareko muztioaren lehen hartidura edo irakinaldia hasiko da, oxigenoa behar duena; egun batzuen ondoren, oxigenoa behar ez duen bigarren hartidura hasten da, sagardoa emango duena) **eta Botilaratzea** (ahal den gutxiena mugituz, sagardoaren beraren txinparta ez galtzeko; kontsumitu bitartean, botilak toki fresko eta ilunean etzanda jasoko dira).



Urbateko nesken taldeko waterpolistek kanpoan hartuko dute esperientzia

Urbat waterpolo taldeko neskek bigarren postua eskuratu zuten Sestaoko Torneoan: hiruko torneo horretan 13-7 irabazi zieten Burgoako Castellae taldekoei eta 7-2 galdu zuten etxekoekin. Plantilla Estibalitz Bilbatua, Libe Arribas, Jone Gomez, Sara Leturiaga, Garazi Catalan, Ainhoa Agirre, Jone Errasti, Alaitz Ibarrola eta Amaia Lertsundik osatzen dute, Iraide Sarria kapitainarekin batera. Ligako azken postuei ihes egiteko moduko kalitatezko taldea izanda ere, jokalaririk gutxi duenez, Bidasoari laga dizkio Euskadiko selekzioan diharduten Arribas eta Leturiaga kadeteak. Beste guztiek Larraina Waterpolo Navarrarekin jokatuko dute seniorretan. Hor jasoko duten esperientziak baliatzeko asmoa dute, Urbaten hemendik ez askora talde lehiakorra osatzeko.



Debabarreneko BTT Martxa

Urriaren 18an, domekan, egingo da gure bailarako martxa horren zazpigarren edizioa eta parte hartzeko izena hilaren 16rako eman beharko da kirolprobak.com webgunean. Ohi bezala, irteera eta helmuga Elgoibarko Mintxeta kirolgunean egongo da eta goizeko 09.00etan hasiko den probak bi ibilbide izango ditu parte-hartzaileek aukeratzeko. Parte-hartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute opari eta herri-martxa modalitatean egingo da, hau da, ez da lehiakorra izango.



Golf P&P txapela Eibarrera

Aurreko asteburuan amaitu zen Oñatiko Ireloren jokatutako binakako Gipuzkoako I. Golf P&P Txapelketa. Horko handicap irabazleen saria Juan Luis Tueros eibartarraren eta berarekin bikotea osatu zuen Luis Arregi arrasatearraren eskuetara joan zen. Garaipena orain dela urtebete zendutako Eibar GLOF P&P-ko lehendakari eta fundatzaile Manu Fernandezi eskaini diote.

Asier Cuevas eta Unbeko pistaren zortzi kaleak betirako lotuta

Martitzenean egindako ekitaldian Eibarko ultrafondistak ondo merezitako omenaldia jaso zuten. Asier Cuevasek ageriko egin zuen berari eskainitako plaka eta, eskerrak emateaz gain, "pista horretan entrenatzen duten guztiei" eskaini zien plaka hori. Jakina, baita bere familia, lagun eta entrenatzaileei "kirol ibilbide luzean eurengandik jasotako laguntzarengatik". Eibarko udal agintariekin batera, atletismo munduko jende asko egon zen Unben herenegun, euren artean Klub Deportiboko atleta gazteenak. 42 urte baditu ere, Asierrek oraindik erronka garrantzitsuak ditu epe ertainera, tartean datorren urtean jokatzeke asmoa duen 100 kilometroko Munduko txapelketa.



Katu-Kalek indartsu hasi du Liga maila igo eta gero

Katu Kale saskibaloitako taldeak kantxa zailean irabazi zuen azken jardunaldian: jakitun bere historia guztian behin bakarrik irten zela garaile Zarautzen, eibartarrek errespetu oso hartu zuten neurketa, eta oraingoan bigarren aldiz ekarri zituzten puntuak Eibarrera. Azkenean Zarautz ZAST-i 80-87 irabazi bazioten ere, hasiera ez zen hain gozoa izan eta lehenengo laurdenaren amaieran bederatzita puntu atzetik zeuden Iñaki Sanchezen mutilak. (25-16).

Atsedenaldira, baina, eibartarrek bost puntu aurretik erretiratu ziren (42-47). Hirugarren laurdena borrokatuagoa izan zen eta horko amaieran Eibarkoek hiru puntuko alde zuten. Horcajada izan zen, 20 punturekin, saskiratzaile onena Katu Kalen, Anderson (18) Garrido (17) eta Will-en (15) aurretik. Asteburu honetan eibartarrek Allerru hartuko dute bihar arratsaldean Ipurua kiroldegian, 18.00etan hasiko den partiduan.

Klubeko maila guztiak bete ditu Eibar Eskubaloiak lau denboralditan

Euskal Ligaren B multzoan jokatuko duen nesken senior talde berriarekin bete du Eibarko eskubaloia taldeak orain lau denboraldi sortutakoaren helburu garrantzitsuenetako bat. Asteburu honetan hasiko du denboraldia talde berri horrek, Haritzak Lurraldeko I. mailakoan egingo duen moduan. Aste honetan euren hasi dutenek, bestalde, indar falta erakutsi dute eta, horrela, Somos Eibar talde nagusia berdinketarekin konformatu behar izan zuen Ipuruan Ereintzaren aurka jokatu zuen neurketan, defentsak nagusitu ziren partiduan (21-21). Harrobi-koek, mutilen gazte eta kadete-



Nesken talde senior berria osatu da.

en Euskal Ligan, porrota izan zuten Usurbilen aurkako partiduetan: 30-34 eta 24-29.

Pello Osoro garaile Ondarroako Triatloian ere

Nagisitasuna erakutsi zuen Saltoki Trikideak-eko atletak zapatuan jokatutako Ondarroako Triatloian 20. edizioan. Osoro eibartarrak minutua eta 25 segundo atera zizkion Aitor Regillaga bigarren sailkatuari Euskal Herriko triatloi zirkuitoko azken proban. Emakumezkoetan, bestalde, talde bereko Aitziber Urkiola eibartarrak ere podiuma lortu zuen proban hirugarren postuan amaituta, Nuria Rodriguez taldekidearengandik 9 minutu-
ra. Delteco Eibar Triatloiko hainbat lagun ere kostaldeko herrian izan ziren: Igor Atxa 22.a izan zen, Edu Oyarzun 32.a (bigarrena beterranoen V2 mailan), Jon Illarramendi, Ioseba Tamayo, Alberto Agirre eta Iñaki Konde, hain zuzen.



Oyarzun, Illarramendi, Atxa eta Urkiola.

Igeriketako epaile izateko aukera

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak epaileak behar ditu ikasturte berriarako eta, horretarako, ikastaroa prestatu dute hilaren 16 eta 17-
rako: barixakuan arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara emango da eta zapatuan, bestalde, goizeko 10.00etatik 13.00etara. Parte hartu nahi dutenek e-maila bidali dezakete gif@igeri.net helbidera. Epaile izateko 18 urte eduki behar badira ere, 16 urtetik gorakoek aukera dute ikastaroa egiteko.



Eibarko ordezkariak arrakasta izan zuen bere herrian.

11 domina geratu ziren Eibarren I. Jiu-Jitsu Kopan

Urrezko hiru domina eta zilarrezko eta brontzezko lau-
na irabazi zituzten Kalamua Klubeko ordezkariak aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokatutako Espainiako I. Jiu-Jitsu Kopan. Borroka modalitatean Nekane Muguruzak eta Iker Martinezek podiumaren gorenera igo zuten, Mikel Marinek eta Unai Zugastik finala galdu eta bigarren postua lortu zuten, Eneko Lores eta Julen Ramon hirugarrenak izan ziren eta Garikoitz Del Barrio bosgarrena izan

zen bere mailan. Ne Waza modalitatean, bestalde, Muguruzak bigarren urrezkoa bereganatu zuen, Mikel Marin eta Josu Olmos bigarrenak izan ziren finalen galduta, Unai Abasolo eta Ander Fernandez brontzezkoaren jabe egin ziren eta Aitor Villalbak bosgarren postua eskuratu zuen. Antolatzaileek espero zuten moduan, Eibarko kirolariak maila eman zuten eta baita euren jarritako itxaropenei modu onean erantzun.


Bost garaipen eta berdinketa eta porrot bana Urkin

Erregional mailako talderik gabe, aurten harrobi lana egite-
ra mugatuko da Urki. Aurreko asteburuan jokatutako partiduetan, jubenil mailako hiru taldeak garaile izan ziren (A mailan, 2-9 irabazi zuen Arizmendiren zelaian; B mailan, 2-1 irabazi zion Aloña Mendiri; eta C mailan, 0-1 nagusitu zitzaion Urolari haren kantxan) eta gauza bera gertatu zen infantil mailan jokatutako lagunartekoetan (5-6 Sorluzen eta 0-2 Ermuan -azken hau infantil txikietan-). Bestalde, kadete mailako neurketetan, Ohorezko mailan 6-1 galdu zuten Aloña Mendirekin eta I. mailan bana berdindu Lagun Onakekin Azpeitian.



Gisasolatarrak nagusi ehiza-txikiko zonaldeko txapelketan

Gure herriko Gisasola aita-semeak Elgoibarko Egañatarrak baino gehiago izan ziren Arabako Santa Cruz del Fierroko Castillo kotoan jokaturako zonaldeko txapelketan. Txakurrarekin ehiz-txikiko lehia horretan, Eibarko Diana elkarteko Iñigo Gisasolak nagusitasun handia erakutsi zuen (berderatzi eper eta faisai bat) txapela janzteko; atzetik izan zituen Mendaroko Kilimon Zaharreko Mauro Gonzalez (lau pieza) eta estatuko txapel-duna izandako Elgoibarko La Unio-neko Arkaitz Egaña (beste lau pieza). Hirurek eskuratu dute hemendik gutxira jokaturako den Gipuzkoako txapelketarako txartela. Gisasola eta Egaña ehiztari handien lehia hori berteranoetan ere izan zen eta hor ere Eibarkoa nagusitu zen: Jose Luis Gi-



sasolak aurrea hartu zion Jose Mari Egañari, biak hiruna eperrekin. Elgoibarko Alipio Alonsok lortu zuen podiumeko hirugarren tokia.

Urkomendi14 eta Eibartarrak garaile, Armagiñak berdindu

Lehenengoan atsedena hartzea egokitu zitzaielako, Eibartarrak-ek ligako bigarren jardunaldian debutatu zuen, eta Oñatin 1-3 nagusitu zitzaion Aloña Mendiri. Lehen Erregional mailako seigarren multzo horretan, bestalde, Armagiñak-ek bana berdindu zuen Bergarekin Unben. Maila bat gorago jokatzeko duen Urkomendi14-k 0-2 (Larraren golak) irabazi zion Ilintxari Legazpin jokaturako neurketan, modu horretan ona eginez lehen jardunaldian etxean izandako berdinketa. Bihar 15.30etan Zumaia-ko jasoko dute Unbeko beheko zelaian.



Julen Lopez eibartarra Eibar FT-ren deialdian


Eibar FT-ren filialean, 3. mailako Vitorian, jokatzeko duen Julen Lopez zentrala Mendilibarrek Celtaren aurka jokatzeko deialdian izan zen, Barrene-txea eskumako hegalekoarekin batera. Azken hau Baskoniatik etorri da, Lopez Eibar FT-ren beheko mailetatik dator eta, gainera, eibartarra da. Jon Errasti Italiara joan eta gero, bera izan da gure herriko lehen ordezkaria talde nagusian. Badira Eibarko beste jokalaririk batzuk goi mailako foballean dihardutenak: horrela, Markel Susaeta Athletic-en lehen taldean jarraitzen du, Nestor Susaeta bere lehengusua 2. A mailako Oviedon jokatzeko du (gola sartu zuen azken domekan), Aitor Seguin Athletic-eko bigarren taldeko titularra da (bera ere 2. A mailan) eta Mikel Oiarzabalek Real B-n edo Sansen jokatzeko du, Realaren lehen taldearekin aurrendenboraldi polita egin ondoren. Jon Larreategik, bestalde, Barakaldo laga eta maila bereko Portugaleten jokatzeko du denboraldi honetan.

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
 Astelehenetik
 ostegunera
PINTXO-POTEA!
 KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO

San Andres
Gozotegia
 ● tartak
 ● enkarguak
 etxera
 Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

eitek
 SOLUCIONES TECNOLÓGICAS
Marka
onenetako
Zerbitzu
Tekniko onena

www.eitek.net



Bihar 20.30ean dantzaz gozatzeko beste aukera bat izango da Coliseo antzokian, *Ambulantes Teatrok* eskainiko duen "Por unos pasitos de ná" flamenko ikuskizunari esker. Ia ordubeteko iraupena duen lana hiru urtetik gorako haurrentzat sortu dute, baina "familia guztiarentzat egokia eta guztiz gomendagarria" dela kontatu digu Juan Cifuentes zuzendariak. Taula gainean Elena Santoja, Florencio Campo eta Patricia Torrero dantzari eta aktoreek jardungo dute. Sarrerak 6 euro balio du.

JUAN CIFUENTES (*Ambulantes*): "Umeentzako flamenkoa da, baina helduen gustokoa"

- Nolakoa da ikuskizuna?

Umeendako flamenko moduan aurkezten dugun hau berez Jerome Ruillier-en ipuin batean, "Por cuatro esquinitas de nada" izenburukoan oinarritutako dantza ikuskizuna da. Dantza eta antzerkia tartekatuta, hiru pertsonaiak forma geometrikoak dira, hau da, biribil bi eta karratu bat. Denak elkarrekin dantzan daude eta, hala-ko batean, oso erakargarria egiten zaizen etxe bat agertuko da. Baina etxeo atea biribila da eta, beraz, karratu itxurako pertsonaia ez da sartzen. Hortik aurrera beste bi lagunak, biribilek, karratuari nola sartu pentsatzen ibiliko dira, bera be barrura joan ahal izateko laguntzen ahaleginduko dira eta konponbide posibleak dantzaren, antzerkiaren eta umorearen bitartez irudikatuko dituzte.

- Umeentzat pentsatuta sortu duzue, baina familia osoarentzat egokia da, ezta?

Bai, berez umeentzat sortu arren, umei laguntzen edo bestela joandako helduei ere asko gustatzen zaie. Dantzari begiratzu gero, dantzariak maila ona erakusten dute. Eta kontatzen duen istorioaren mezua, ezberdina dena errespetatu behar dela dioena ere unibertsala da. Ikuskizun originala da, publiko zabalarentzat egokia eta erakargarria.

- Saritutako ikuskizuna ere bada...

Bai, 2012an Max sarietarako izendapena jaso zuen, ezusteko ikuskizunen atalean, azkenean sari barik geratu bazen ere. Baina Gaztela Mantxako publikoak emandako botuei esker, lanak dantza ikuskizun onenari saria jaso zuen.

- Eibarren aurkeztu eta gero, datozen asteotan batetik bestera ibiliko zarete, ezta?

Bai, udazkena zuekin Eibarren hasiko dugu eta domekan Alcobendasera joango gara, han ikasleentzat eskaintzeko. Hortik aurrera eta Platea programari esker batean eta bestean ibiliko gara lanean. Espainian, eta batez ere hegoaldean, kulturarekin lotutako guztia nahiko txarto dabil eta Platea modukoek bizia ematen digute. Hala ere, agintariak kultura biziberritzeko bitarteko egokiak ipin iz gero, ez litzateke horrelako programen premiarik izango.



Bertso musikatu arrakastatsuak

Aurreko barixakuan Hankamotzak bertso eskolakoen eskutik Txaltxa Zelaian egindako bertso musikatuaren saioak jende ugari batu zuen. Publikoak ondo baino hobeto pasatu zuen Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Odei Barroso eta Uxue Alberdi bertsolariek Iker Iriartek emandako gaien inguruan bota zituztenak entzuten, hori guztia Gari Otamendik biolinarekin eta Igor Arruabarrenak gitarrarekin lagunduta, gainera.



Kaleetan Kantuz-en kalejira zapatuan

Udako oporrak atzean laga dituzte Eibarren Kaleetan Kantuz abesbatzakoei eta irailean pare bat irteeratan parte hartu dute: irailaren 12an, Kantabriako Etxekoek antolatutako Bien Aparecida jaiaren harira, Untzaga inguruan kalejira ibili ziren eta aurreko asteburuan, zapatuan, Aretxabaletan abestu zuten. Bihar arratsaldean, berriz, hileroko kalejirekin hasiko dira, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako soinu-joleek lagunduta, 19.45ean Untzaga-rik abiatuko den kalejirarekin.

Publiko zabalari zuzendutako dantza

Dantzaz Konpainiak "Itzalak / Txoriak" ikuskizuna aurkeztuko du Coliseoan, gaur 20.30etan hasita. Dantzaz Konpainiaren ekoizpen honetan nazioartean ezagunak diren bi euskal musikari batu dituzte eta, horiekin batera Paolo Mohovich eta Josu Mujika koreografo ezagunen lana ikusteko aukera izango da: "Itzalak" lehen proposamenak Arriaga eta Mohovich elkartzen ditu eta, argia eta itzalarekin jolastuz, dantzariak gorteko amodiozko harremanak taularatuko dituzte. Eta "Txoriak" Josu Mujikaren piezak Mikel Laboaren unitertsoa arakatzeko du: askatasuna, osasun mentala, erotasuna, besteekiko harremanak... Iñaki Salvador-ek egindako soinu piezak Mikel Laboaren kanturik esanguratsuenak batzen ditu, "ikusleak hunkitu eta ha-



Josu Mujika eta Paolo Mohovich koreografoen lana eskainiko dute.

rrapatzeko". Ikuskizunak dantza garaikidea, era guztietako publikoari helarazi nahi dio. Adriana Pous-ek zuzenduta, dantzariak Jone Amezaga, Carmen Derré, Garazi Etxaburu, Valerio Di Giovanni, Axier Iriarte, Sune Klausen, Richard de Leyos, Agustin Martínez, Paula Parra, Nora Paneva, Josu Santamaría eta Rafke Van Houplines. Sarrerak 6 euro balio du.

rrapatzeko". Ikuskizunak dantza garaikidea, era guztietako publikoari helarazi nahi dio. Adriana Pous-ek zuzenduta, dantzariak Jone Amezaga, Carmen Derré, Garazi Etxaburu, Valerio Di Giovanni, Axier Iriarte, Sune Klausen, Richard de Leyos, Agustin Martínez, Paula Parra, Nora Paneva, Josu Santamaría eta Rafke Van Houplines. Sarrerak 6 euro balio du.

Kezkako dantzariak Valladoliden

Aurreko asteburuan Kezka Dantza Taldeko dantzariak Valladoliden egon ziren, hango Gure Txoko euskal etxeak gonbidatuta: "Arrateko dantzak Gaztela-Leongo hirian aurkeztu genituen, Valladolideko euskal etxeak antolatzen duen euskal jaiaren ospakizunetan. Ezpata-dantza eta trokeo-dantzak egiten 25 lagun izan ginen, lau txistularik la-

gunduta. Zapatu arratsaldean Arrateko dantzak jendaurrean eskaini genituen eta domekan, berriz, Valladolideko kaleetan barrera ibili ginen, Gure Txoko elkarteko kideekin batera han eta hemen dantzan. Sokadantza, fandango eta arin-arinak, Arrateko brokel-dantzak eta beste hainbat eskaini genituen hiriaren erdigunean zehar".



Gure Txoko euskal etxea 1983an sortu zen eta betidanik eutsi dio Euskal Herriarekiko loturari. Euskal etxeak abesbatza urtero han eta hemen abesten ibiltzen da eta dantzariak ere maiz gonbidatzen dituzte: "Azken urteetan Elgoibarko Haritz Dantzari Taldeak hartu izan du parte eta aurten Kezkako dantzariok pasa digute lekukoa".

Koldo Izagirrek hasiko du Harixa Emoten

Datorren aste martitzen ekingo dio ikasturteari... eta kitto! Euskara Elkarteak eta Juan San Martín liburutegiak elkarlanean antolatutako Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubak, Portalean 19.00etan hasiko den saioarekin. Ikasturte honetako lehen gonbidatua Koldo Izagirre

izango da, eta Antxon Narbaizak zuzenduta "Dumitru" nobela aztertuko du, irakurketa klubeko kideekin batera. "Dumitru" (Erein, 2014) gazteei zuzenduriko nobela da. Pertsonaia nagusiak Dumitru 12-14 bat urteko mutikoa eta Olatz haren gelakidea dira eta, bi horien bitartez, immigrazioaren



inguruko hausnarketa egin du egileak liburua dauzkan 70 orrialdeetan kontatzen duen istorioan.

laburrak

FDZ. DE MARURI DURANGON

Esther Fernandez de Maruri artista eibartarrak erakusketa dauka martxan egunotan Durangon, Ezkurdiko Udal Aretoan. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatutako erakusketa artistak olioak eta zeramika piezak ipini ditu ikusgai. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, gaur 18.00etatik 20.00etara; eta bihar eta etzi, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.



MUSEOKO ERAKUSKETA

Domekan itxiko dute 'Pedalei eraginez etorkizunerantz' aldi baterako erakusketa Armagintzaren Museoan. Orbea, BHBKERS, BIZIBAİK, Seg Way eta Elortza Ortopedia-ren laguntzarekin prestatu dute. Portaleko 5. pisuan, museoaren sarreran dagoen erakusketa gaur eta bihar 16.00etatik 20.00etara zabalduko dute eta domekan, berriz, goizeko 10.00etatik 13.00era (doan).

Bertso-paper lehiaketa martxan

Datorren astelehenetik, urriak 5, azaroaren 2ra arteko epea izango da aurtengo San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak entregatzeko. XXI. edizio honek ere maila bi izango ditu: 16 urtera artekoek (Eibarko ikasleak) bertso bat edo bi kopla aurkeztu beharko dituzte, eta 16 urtetik gorakoek, berriz, (Euskal Herri mailan) lau puntu edo gehiagoko sei bertso gutxienez (hamar gehienez). Gaia edo doinua libreak izango dira eta bertsoak jatorrizkoak. Lanaren hiru kopia (gaitzizenarekin sinatuta; beste

orria batean, eta gutunazal itxian, gaitziena identifikatzeko datuak: izen-abizenak, telefonoa eta adina) postaz bidaliko dira (edo eskura eman) ...eta kitto! Euskara Elkartera (Urkizu 11, solairuartea). Irabazleek azaroaren 20an (barixakua) egingo den bertso-jaialdian jasoko dituzte sariak. Gazteen artean liburua eta txapela jasoko ditu irabazleak, eta liburua eta pla-



ka bigarrenak. Nagusien artean, berriz, 300 euro eta txapela irabazleak eta 250 euro eta plaka bigarrenak.



Berbetan jaialdi arrakastasua

Aurreko barixakuan Berbetan mintzapraktika egitasmoaren jaialdia antolatu zuen ...eta kitto!k Untzaga plazan. Harrera ezin hobea izan zuen jaiak, eta jendez lepo egon zuen plaza. Umeentzako ez zen aspertzeko tarterik izan: eskulan-tailerrak, globo-banaketa, puzgarriak eta Irrien Lagunak taldearen ikuskizunak bete zuten arratsaldearen zati luze bat. Umeak ondo pasatzen ziharduten bitartean, ...eta kitto!ko dinamizatzaileek eta Udal Euskaltegia eta AEK euskaltegiaren ardura-dunek, Eibarren euskera ikasi eta praktikatzeko eskaintzen ditugun aukeren berri eman zieten gertura-

tu ziren helduei. Aurten Berbetanek eskaintzen duen berritasunik nabarmenena, programan izena taldeka ere eman daitekeela da. Barixakuan bertan erantzuna ona izan zen, eta 10 talde berrik egin zuten bat egitasmoarekin. Taldeek, beren ohiturak aldatu barik, eta orain arte egin dutena eginez, tarte batean behintzat euskera erabiltzeko konpromisoa hartzen dute: umeei ogitartekoa ematerako momentuan, umeen zain zerbait hartzen ari direnean, koadrillan daudenean... Izena emateko deitu ...eta kitto!-ra (943200918) edo bertara ere joan daiteke (Urkizu 11, solairuartea)

Eibarko zaletuen argazkiak Topalekuan

Atzo inauguratu zuten Topalekuan urriaren 11ra arte ikusgai egongo den "Eibar munduan" erakusketa. Eibar foball taldearen argazkiekin osatutako erakusketa talde armagiñaren sorreraren 75. urteurrenaren harira antolatu dute: "2013. urte amaieran lehiaketa antolatu eta zaletuei munduan zehar egindako argazkiak bidaltzeko dei egin genien. Ia urte bi igaro eta gero, 300 lagunetik gorak bidalitako argazkien artean batzuk aukeratu eta horiek ipini ditugu Topalekuan ikusgai". Erakusketak tabernatik edukiko du sarrera eta, beraz, egun osoan egongo da zabalik, goizeko 10.00etatik gaueko 21.00ak arte eta ikustera doazenean gehien gustatzen zaizkien hiru argazkien aldeko botoa emateko aukera izango dute. Lehiaketako epai-mahaia bisitarien bozkak kontuan izango dituztela iragarri dute.



Bizkaiko artista gazteen erakusketa

Martitzenaz gozotik "Ertibil Bizkaia 2015" ikus-artearen erakusketa ibiltaria dago ikusgai Portalean. Urriaren 18an atek itxi bitartean, martitzenetik barixakura zabalduko dute, 18.30etatik 20.30etara. Lehen aldiz Gipuzkoan bisita dagoen erakusketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak Bizkaiko hainbat udalerrirekin lankidetzan antolatzen du eta artista gazte bizkaitarren artelanak ikus daitezke. Atzo euskerazko bisita gidatua eskaini zuten eta gaztelerazkoa, berriz, datorren asteko egunean (hilak 8an) izango da, 19.00etan.



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MIKEL, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIKEL, irailaren 26xan bost urte egin zenduaz-eta. Besarkada haundi bat etxekuen partez.




Ongi etorri, GARAZI, 28tik gurekin zagoz-eta. Zorionak, Aritz eta Miriam! Famelixaren eta, batez be, birramonaren partez.



Zorionak, ANER Lopez Egaña, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Famelixakuen eta, batez be, Danel eta Noaren partez.



Zorionak, DANEL, bixar zortzi urte beteko dozuzelako. Nuxu haundi bat Miren, Paula eta etxekuen partez.



Zorionak, MADDI, 29xan hiru urtetxo egin zenduaz-eta. Muxu bat famelixakuen eta, batez be, Ekhiren partez.




Zorionak, NEREA, haraiñegun sei urte egin zenduaz-eta. Muxu bat aitta, ama eta MIKELen partez.



Ongi etorri, MALEN!, irailaren 20xan gure artera etorri zifalako. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, MIRENen partez.



Zorionak, ANDER eta NAROA, bixak urrikuak zarie-eta. Milla muxu goxo etxeko danon partez.




Zorionak, MALEN (martitzenian 12 urte egin zenduaz) eta LAIA (urriaren 11n bi urtetxo beteko dozuz). Patxo haundi bana famelixako danon partez.



Zorionak, ANE, hillaren 7xan zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Joneren partez.



Zorionak, MIREN, domekan bost urte egingo dozuzelako. Etxeko guztien partez.



Zorionak, BEÑAT!, astelehenian zortzi urte egin zenduaz-eta. Patxo pillua etxekuen partez.

hildakoak

- Pakita Oiarzabal Lizarralde. 94 urte. 2015-IX-25.
- Manuela Cestona Etxaniz. 83 urte. 2015-IX-29.

jaiotakoak

- Itziar espilla Zabala. 2015-IX-21.
- Xuban Plaza Ubera. 2015-IX-22.
- Firas Balla Bellach. 2015-IX-25.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
3an: 19.45, 22.30
4an: 20.00
5ean: 20.30

“El desconocido”

Zuzendaria: Wes Ball



(2 ARETOAN)
3an: 22.30
4an: 17.00, 20.00
5ean: 20.30

“Reina y Patria”

Zuzendaria: John Boorman



(ANTZOKIAN)
3an: 17.00, 19.45, 22.30
4an: 17.00, 20.00
5ean: 20.30

“Regresión”

Zuzendaria: Alej. Amenabar



(ANTZOKIAN)
3an: 17.00 -2 aretoan-
4an: 17.00

“La casa mágica”

Zuzendaria: Ben Stassen



BARIXAKUA 2

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii eta diana. Indianokuan.

KASTING-A

18.00/20.00. Urriaren 16an egingo den moda desfilearako 3-12 urteko umeak aukeratzeko proba. Photocalla umeen sailean. El Corte Ingles-ean.

ZINE-FORUMA

19.00. "Caos" filmaren inguruko, Pagatxa eta Defibel elkarten eskutik. Portalean.

MAGIA

19.30. Tor Magoaren ikuskizuna eta txikiteoa, Valle tabernaren 100. urteurrena ospatzeko. Valle tabernan.

DANTZA

20.30. "Itzalak/Txoriak" (Dantzaz Konpainia). 6 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 3

AZOKA EKOLOGIKOA

10.00/14.00. Debabarreneko IV. Azoka Ekologikoa. Urkizuko parkean.

SAN WENZESLAO JAIK

10.30. Jaien hasiera, trikitilariekin.

11.00. Auzokoen artisautza erakusketa.

11.30. Ume eta helduendako jokoak: sokatira, kaskara-biltzea, zaku-lasterketa...

12.15. Pintxo-potea (txorizoa).

13.15. III. Patata-tortilla txapelketa.

14.30. Herri-bazkaria, Duo Amanecer taldeak girotua.

18.30. Txokolate-jana.

19.30. Pintxo-potea.

20.00. Musika, DJ Arnorekin.

00.00. Jaien amaiera. Wenzeslao Orbean.

SAGARDO EGUNA

12.00/14.30 eta

19.00etik aurrera. Egun osoko jaia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik: Gorenak 13 sagardotegietako sagardoa, umeendako jokoak, era-kusketa... Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii eta diana. Indianokua gaztelekuan.

AGINAGAKO JAIK

17.00. Briska txapelketa.

17.30. - Umeendako jolasak eta txokolate-jana.

21.00. Lagunarteko afaria.

23.00. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean, txokolate-jana. Aginagan.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. Aurpegiak margotzea. El Corte Ingles-ean (ekitaldi aretoan).

OPERA

19.45. Aurrez grabatutako "La Traviata" (G. Verdi) operaren emanaldia, Londreseko English National Operatik. Coliseoan.

DANTZA

20.30. "Por unos pasitos de ná" (Ambulantes Danza). 6 euro. Coliseoan.

DOMEKA 4

KILOMETROAK

09.30. Usurbilera, ikastolen jaira joateko autobusen irteera. Torbio Etxebarriatik.

AGINAGAKO JAIK

11.00. Meza nagusia.

12.30. Gorritiren abereak.

14.30. Paella-jana, Mugi Panderoa taldeak alaitua.

17.00. Jaien amaierako zozketa. Aginagan.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandarena. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17.00. Just Dance eta diana. Indianokuan.

ASTELEHENA 5

IKASTEN

10.00. Ikasturte hasiera eta Esperientzia Eskolako 11. promozioiko ikasleei harrera. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16.00. Sendabelarren Foroa. Ikasturte berrirako ideiak jasotzeko saioa. Portalean.

IRAKURKETA KLUBA

17.00. Azalerako Ipuinak.

18.15. Ipuinen Poltsa. Saroa Bikandiren eskutik. Liburutegian.

MARTITZENA 6

IKASTEN

16.00. Joskintza tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Irakurketa taldearen saioa. Koldo Izagireren "Dumitru" liburua. Portalean.

EGUAZTENA 7

IKASTEN

09.10. Santurtzi (Kabiez-Luzero Punta) Zierbana mendi ibilaldia. Boluetan metroa hartuko dute, Kabiez-eraino. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Estaziñotik (**09.12**etan Ardantzatik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 8

KALETAN KANTUZ

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

erakusketak

✓ Urriaren 4ra arte

"PEDALEI ERAGINEZ ETORKIZUNERANTZ". Armagintzaren Museoan.



✓ Urriaren 11ra arte

"EIBAR MUNDUAN" Eibar Foball Taldearen argazki erakusketa. Topalekuan.



✓ Urriaren 18ra arte

"ERTIBIL BIZKAIA 2015" erakusketa ibiltaria. Portalean.



lehiaketak

✓ I. Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 7ra arte**, Portalean.

✓ Erosketak euskeraz egitera animatzeko lelo-lehiaketa

Informazioa eta botazioak: **Urriaren 9ra arte**,
www.facebook.com/etakittoaldizkaria helbidean.

✓ "Sanandresak Eibarren" kartel lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 13ra arte** (19.00ak arte), Pegoran.

✓ San Andres Bertso-paper lehiaketa

Informazioa eta lanak aurkeztea: **Azaroaren 2ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 - solairuartearen).

ikastaroak

✓ Bideogintza

Norentzat: 12-18 urte bitartekoentzat. **Noiz eta non:** Urriaren 9, 11, 16, 18, 23, 25 eta 30ean, 17.30etatik 19.30etara Indianokua gaztelekuan.
Izen-ematea urriaren 4ra arte.

✓ Jabetze Eskolako ikastaroak

Noiz eta non: Iraila eta abendua bitartean, Andretxean eta Portalean.
Eskaintza: "Maitasuna ez da kristorena!" (gaztelerez, 22 ordu, izen-ematea urriaren 9ra arte); "Nire burua zaindu, zu zaindu" (gaztelerez, 16 ordu, izen-ematea urriaren 19ra arte); eta "Transfeminismoa" (gaztelerez, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).


diru-laguntzak / bekak

✓ **XII. Juan San Martin beka.** Eskakerak: Urriaren 9ra arte, Pegoran.

✓ **Umeak Eskolara.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.

✓ **Ikasleentzat.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.

✓ **Langileak kontratatzeko.** Eskakerak: Urriaren 30era arte, Pegoran.



S U D O K U A

2		4				1		6
	6					7		
			2	3		4		
			5	2		3		
7								9
	1		6	7				
		8		7	5			
		5					4	
1	2					5		7

3	6	8	4	2	1	7	9	5
5	7	1	9	6	3	8	2	4
2	9	6	7	8	5	6	3	1
6	4	2	5	3	8	1	7	9
1	3	7	6	9	2	4	5	8
9	8	5	1	4	7	3	6	2
8	1	9	3	5	6	2	4	7
7	5	6	2	1	4	9	8	3
4	2	3	8	7	9	5	1	6

AURREKOEN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

farmaziak

✓ barixakua 2

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ zapatua 3

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ domeka 4

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ astelehena 5

EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

✓ martitzena 6

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ eguaztena 7

EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✓ eguena 8

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ barixakua 9

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

GAUEZ BETI

Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukalde berria, 5 horma-armairu eta trasteroa. Igozailua. Argitsua. 130 m. erabilgarri.. Erdikaldean. Tel. 626-203838.
- Pisia salgai Jardinieta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 90.000 euro. Aukera bikaina. Tel. 650-628297.
- Pisia salgai Polonia Etxebarria kalean. 4 logela, egongela, sukalde eta bainugela osatua eta komuna. Despentsa eta ganbara. Tel. 670-757393 eta 664-405112.

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.
- Pisia hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-588444.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 200cc Maxi Scooter Piaggio-Vespa motorra salgai. Kofreekin edo gabe. Egoera onean. 600-700 euro. Tel. 628-521115.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje bikoitza salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 617-336462.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan, bezero finkoekin. Tel. 695-711730.
- Jatexea traspasatzen da Eibarren, terraza handiarekin. Tel. 602-130737.

3.2. Errentan

- Bulegoa alokagai, bainuarekin. Jantzita. Tel. 600-540684.
- Garajea alokagai San Pion. 28 m². Tel. 652-775746.
- Gazteentzako lokala alokagai Jardinieta, 34an. 132 m². Dena kanpora begira. Berritua. Legezatzate proiektuarekin. Etxerik ez inguruan. Tel. 656-756485.
- Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-127294.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123667.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 629-776212 eta 611-226678.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-891885.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 661-001246.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduz gabe. Tel. 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzailerik jarduteko. Tel. 677-259560.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 661-064027.
- Neska eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian graduatua. Alzheimer gaixoei esperientzia. Autoarekin. Tel. 626-168258.
- Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzailerik jarduteko eta kamarera jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-905841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-192769.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Eguneroko 3 orduz gutxienez. Esperientzia. Tel. 662-283671.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 610-619764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 631-967238.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburu eta jaiegunetan. Tel. 681-055905.
- Neska eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
- Neska arduratsua eskaintzen da txakurrak ateratzeko edo astebururako txakur kanguru izateko. Tel. 657-728859.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695-719744.

- Emakumea eskaintzen da 09.30etatikurrera etxeetan lan egiteko. Tel. 608-588444.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-101207.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauz ere) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 690-134485 eta 943-740672.
- Gizona eskaintzen da igeltsero, itogin edota edozein gremiotan jarduteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 637-207806.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduz gabe. Tel. 688-820508.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 636-815924.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako egiteko, sukaldari-laguntzailerik jarduteko... Tel. 634-437852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 09.00etatik 16.00ak arte. Tel. 680-808125.
- Mutila eskaintzen da mendian eta lorategietan lan egiteko: motosegarekin, garbiketara... Tel. 690-381698. Fco. Javier.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta bulego edo pegorak garbitzeko. Tel. 653-010861.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-611454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-886450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 690-223601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-342874.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 636-815924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.

4.2. Langile bila

- Autonomia behar da, furgonetarekin, Eibarren banaketak egiteko. Tel. 616-642631.
- Emakume euskalduna behar da baserrian nagusia zaintzeko. Autoarekin. Tel. 688-649596.
- Banatzailea behar da Txioan gidatzeko baimenarekin. Tel. 943-206346.
- Hoteleko harreran lan egiteko pertsona behar da. Euskeraz eta ingelesez beharrezkoak. Kontutan hartuko dira hoteleko harreran esperientzia eta frantsesa. Bidali curriculuma: deba@aisiahoteles.com
- Kamarera/o eta sukaldaria behar dira, esperientziarekin. Behin-betiko kontratua izateko aukerarekin. Bidali curriculum, argazkiarekin: camareros12345@gmail.com
- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegiko baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna baterako extra moduan. Ezinbestekoa euskaraz jakitea. extraebar2015@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskerazko klaseak ematen ditut: azterketarako prestaketa, IVAP, HABE, EGA,... Ume eta helduentzat. Baita on-line ere. Tel. 620-608065. Luz Mar.
- Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrek emateko. Esperientzia. Tel. 686-925897.
- Klase partikularrek ematen ditut. LH eta DBHko edozein ikasgai. Tel. 699-597315.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrek eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Spin Ryder 3 erroberako patineteta salgai. Merke. Tel. 617-256466.
- Compex elektroestimuladorea salgai. Ia berria, gutxi erabilia. Tel. 666-444074.
- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Bugaboo Camaleon "All Black" edizioa salgai. Egoera ezin hobean. Kapota gorria opari. 500 euro. Tel. 655-709707.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan, Berbetan jaialdian, 5 urteko umearen txamarra berdea aurkitu genuen Untzagan. Tel. 943-200918.
- Irailaren 12an 7-8 neurriko neska suda-dera beige-a aurkitu nuen Urkizun. Tel. 657-713406.



POLICLINICA GIPUZKOA

UNIDAD DE BIOMECÁNICA
DEL CICLISTA

younextbike
BY PODOACTIVA

TXIRRINDULARIAREN OSASUNA ETA ERRENDIMENDUA

Txirrindulariaren Biomekanikaren Unitateak kirolariaren azterketa integrala egiten du txirrindulariaren jarrera bizikletaren osagaiei behar bezala egokitzeko; horren ondorioz, lesioak saihestea eta kirolariaren teknika, errendimendua eta erosotasuna hobetzea lortzen dugu.

Zertan datza azterketa?

Txirrindulariaren Biomekanikaren Unitatean puntako sistemak dauzkagu txirrindularitzaren diziplina bakoitzean posturarik hoberena bilatzeko.

Elkarrizketa pertsonalizatua.

Miaketa fisioterapeutikoa.

Neurketa antropometriko-estatikoa.

Azterketa pertsonalizatua Real Fit Bike izeneko bizikleta robotikoan, txirrindulari bakoitzaren informazio osoa bilduz, gero neurri horiek haren bizikletara eramateko.

Pedaleoaren, orkatilaren, belauaren eta aldakaren azterketa zinematikoa 3Dn, pedaleo hoberena zelakoa izango zen ikustarazi eta pedaleoan izan daitezkeen asimetriak edo desorekatzeak aztertzea lortuz.

Gorputz osoaren azterketa zinematikoa 4Dn. Txirrindulariaren jarrera aztertzen dugu bere osotasunean, edozein aldaketak bizikleta gainean hartutako posturan haren eskeletoan izan dezakeen eragina baloraturaz.

Presioetako analisisien sistema. Txirrindulariak aulkian, oinetan eta eskulekuan egiten duen presio indibidualizatuaren azterketa.

Bizikletaren kustomizazioarekin, bizikletaren neurri zuzenak transferitzen ditugu azterketan lortutako koordinatuei jarraituz.



Eskaneatu kodigo hau zure mugikorrarekin Txirrindulariaren Biomekanikaren Unitatea ezagutzeko



INFORMAZIO
GEHIAGORAKO

943 00 09 36

www.policlinicagipuzkoa.com

